



Angelu itsua

Politika, ekonomia eta historia



[Hasiera](#) » [Ekonomia](#) » Euskaldun pobreak barregarri utzi zituen komedia
Mar17 0

Euskaldun pobreak barregarri utzi zituen komedia

Atalak: [Ekonomia](#), [Gizartea](#), [Historia](#)



“Mozkorra barregarri” operaren irudia, 2015ean berriz ere taularatu zutenean. Mozkorra agertoki horretatik jaitziaz du orain Aranbarrik.

Ez da Madrilgo plaza nagusiraino joan behar behartsuenganako [jarrera umilianteak](#) ikusteko. Nahikoa da Euskal Herrian 250 urte atzera egitea: *El borracho burlado*-k ederki laburbiltzen du orduko eta gaurko eliteen umore zanpatzailea.

Iñigo Aranbarrik aurkeztu berri du [Txanton Garrote agertokitik jaitzi zen eguna](#) (Pamiela, 2016) saiakera edo “artefaktu literarioa”, prentsarean Jose Luis Otamendi liburuaren sarrera egileak deskribatu moduan.

Peñafloridako kondeak idatzitako [El borracho burlado](#) opera eta 1766ko matxinadaren bueltan zegoen giro soziala uztartu ditu idazle azkoitiarrak. Biak ahala biak duela bi mende bezala gaur egun bizi ditugun konflikto sozialen adibide dira.

1764an estreinatutako euskarazko opera komikoan Txanton Garrote pertsonaia *ordinarioa* sinetsita dago Urola bazterretan bizi den jauntxoetako bat dela eta eskarmentua jasotzen du alantze klasista gainditu nahi izanagatik, sarkasmo maltzurrez jaso ere.

Bi urte geroago, baina, bera bezalako langile eta nekazari gosetuak egitan matxinatuko dira jauntxo ilustratuen kontra. XVIII. mendeko Gipuzkoa Europan suspertzen ari zen merkatu librearen utopiaren laborategi zen, eta lurraldeko gariarekin espekulatzen hasiak zeuden bertako eliteak.

Matxinada izan zen aberatsak gosearekin jolas egiten hasi zirenean herritarrengandik sortutako lehen erreakzioa. Klase borroka horretan matxinatuek larrutik ordaindu zuten eta Txanton Garroteren zigor bera jaso zuten, pentsaera klasistaz kargatutako umore menderatzailea erabili zuten gizon ilustratu hauek. “Barrerik ez dago ideologiarik gabe”, zioen Aranbarrik liburuaren aurkezpenean.

250 urte geroago neoliberalismoak gauza bera egin du, goseari zaion izuarekin jolasten ari da burtsan, pertsonak izaki sozialak baino izaki ekonomikoak bagina moduan, aldamenekoa barregarri utzita hura esplotatzen segitzeko baimena bagenu bezala. PSVko hooliganek ez dute ezer asmatu, tamalez.



Iruzkina idatzi

Zure e-posta helbidea ez da argitaratuko. Beharrezko eremuak * markatuta daude